



### Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2013ko urriak 3ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Hurrengo puntuen berri eman da.** 1.1. Tokiko Agenda 21; 1.2. Mugi 21; 1.3. Eskola Bidea; 1.4. Hondatutako ibaiertzak berreskuratzea; 1.5. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal, S.L-ren arteko hitzarmena, tamaina txikiko etxeko hondakinetako frakzioak berrerabiltzeko prestaketa-zerbitzua emateko. 1.6. Hitzarmenen egoera eta kuotak; 1.7. EEEren bizikletaren hiri-erabilerari buruzko ikastaroak; 1.8. EEEk udalei egindako informazio eskaera; 1.9. Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek argitaratutako albisteak; 1.10. Egunkariko protesta; 1.11. Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astea; 1.12. S.L-ren Estatutoen aldakuntzarako sinadura zirkuitua; 1.13. Bilerak; 1.14. Eraikuntza eta eraispn hondakinen gaineko dekretua; 1.15. Eraikuntza-plangintzaren dokumentuak eta bizikletentzako sarearen bideragarritasuna; 1.16. Udalsarea 21en Batzorde Teknikoa.
- **Eskola Agenda 21:** 2013-2014 ikasturtean, Kontsumo Arduratsuaren gaia jorratuko da. Hamar dira parte hartzen duten ikastetxeak, iazko bederatzia eta Valle de Orozko LHLI. Programa dinamizatzeko, Ondoan S.Coop.en eskaintza kontratatu da, 17.590 euroko aurrekontuarekin (BEZ gabe). Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren diru-laguntza eskatu da, baina oraindik ebazteke dago.
- **Emisio Fokuen Inbentarioko lantaldea:** Galdeketa bat egingo da udal teknikari arduradunen artean, emisio fokuen inbentarioaren jardura plana garatzeko topaketa batean parte hartzeko dagoen interesa ikusteko.
- **Erosi eta kontratatzeko eskualdeko zerbitzurako pilotajea:** Jasotako eskaintzen berri eman da, eta ontzat jo da negoziazioa, betiere, planteatutako hobekuntza-marjinen eta muga ekonomikoen barruan. Lehiaketa batean edo bestean (5. edukiontzia edo hornidura elektrikoa) interesik ez duten udalei eskaera egin zaie eskualdeko bulegoari jakinaraz diezaioten.
- **Abandonatutako animaliak batzeko zerbitzua:** Zerbitzu honen lehiaketarako Eudel egiten ari den baldintza-orrien ereduaren gaineko lanaren berri eman da, izan ere, hainbat deribazio daude: ekonomiko eta etikoak, kontratuak nahiz animaliak babesteko legea betearaztearen inguruan. Egutegi horrekin jarraitzea adostu da, Nerbioi-Ibaizabalgo lehiaketan hobekuntza eta aurrerapenak gehitu eta egokitzeko.
- **Sare berdea:** Inguruko udalerrietarako eta eskualde osorako interesa eta potentziala balioetsi da, eta Ugao-Miraballesko emaitzak tokian bertan ezagutzeko bisita planteatu da.
- **Eskola Bidearen diru-laguntzarako eskaera:** Urriaren 31n EEEri diru-laguntzak eskatu ahal izateko eskaerak aurkezteko epea amaitzen denez, proiektuari buruzko interesa izan dezaketen zentroen gaineko informazioa eskatu da.
- **Ingurumen lehengoratzea bertako basoarekin:** Egon litezkeen proiektuak aztertzeko topaketa bat antolatzea adostu da, aurreikus daitezkeen laguntzetan berau nola zehaztu eta sartu jakiteko.



- **Hirugarren hiruhilekoko balantze ekonomikoa:** Eskualdeko bulegoak aurreikuspenekin eta gastuari eusten jarraitzea proposatu du.
- **2014ko Kudeaketa Planaren aurrerapena:** hiru aurrerapen proposatu dira: 1) Onarpen egutegiarena, abenduko batzordera. Azaroko batzordean udal bakoitzak duen gastuaren eta kuotaren lehen simulazioa egingo da. 2) Hitzarmenen bidalketarena eta kuoten eskaerena, urtarrilaren 2ra. 3) Kuoten diru-sarrerena, lehen hiruhilekora.
- **Batzordearen hurrengo bilerak:** azaroak 7 eta abenduak 5.